

*Bertako saltokietan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kontsumitzeak duen garrantziaz herritarrek sentsibilizatzea da kanpainaren xedea*

Beasaingo Udalak tinko eusten dio udalerrian erosketa eta kontsumoa bultzatzeko konpromisoari, tokiko merkataritza eta zerbitzu sektorea indartzeko balio dezan. Lokal hutsak berrerabiltzea eta tokiko ekonomia aktibatzea funtsezkoak dira merkataritza sarea indartzeko. Merkataritza bizirik izatea funtsezkoa da udalerri bizia izateko. Izan ere, herritarren arteko harremanak gizarte kohesioa indartzen du, eta dendak, saltokiak eta zerbitzu bulegoak topaleku dira eguneroko bizitzan eta eguneroko ohituretan. Udalerrian bertan kontsumitzeak eragina du herritarrengan eta ekonomia zirkularra bultzatzen du.

Horretarako, Beasaingo Udalak udalerriko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kontsumitzeak duen garrantziaz herritarrek sentsibilizatzeko komunikazio kanpaina bat jarri du abian. Horren berri eman du Leire Artola alkateak “Beasainek B aukera du” kanpainaren aurkezpenean. Udal mandatariairen arabera, estrategia sortzailea herritarrek bi planen artean aukeratzera gonbidatzean datza: A Plana edo B Plana.

### **Bi faseko kanpaina**

“Kanpaina ofizialki duela bi aste abiatu zen, erabiltzen ez diren lokaletako erakusleiho batzuetan jakinmina pizteko kanpaina bat ikusi ahal izan dugu, mezu bat erakutsiz: Beasaingo Udalak sinatutako “B aukera daukagu”. Kanpainaren sarrera honek aukera eman digu hausnartzeko zer esan nahi duen mezuak” azaldu du alkateak.

Gaurko aurkezpenarekin, kanpaina zertaz ari den jakiteko unea da. Aste batzuetan, Beasaingo Udalak herritarrengan eragin handiagoa izateko hainbat euskarri grafiko ikusgai jarriko ditu, kontsumoak Beasaingo merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan duen garrantziaz sentsibilizatzeko.

Kontsumitzaileari “A eta B aukerak” eskaintzearekin batera, Beasaingo “B aukeraren” alde egitea gonbidatzen zaio, eta udalerriko

establezimenduek eskaintza hori erakusleihoetan bereizgarri batzuk jarritz ikusaraziko dute, euren burua “B aukera” gisa eskainiz.

“A aukera” bapatekoa da, gogoeta gutxikoa, eta klik bat besterik ez da behar online erosteko. “B aukera”, Beasaingoa eta Beasainen, erosketa esperientzia zabalagoa, aberasgarriagoa eta online erosketa ezbezalakoa da; kalez kale ibiltzea, herriko bizilagunekin eta merkatariekin elkarreragitea, aholkularitza ematea eta udalerriko beste ostalaritza esperientzia batzuekin uztartzea dakar.

Saltokietan bereizgarri batzuk jarritz, kontsumitzaileei jakinaraziko zaie hemen, Beasainen, “B aukera” daukagula.

### **Kaleko ekintzak**

Erauskin plazan, erosketa poltsa erraldoi batek kanpainaren grafikoak erakutsiko ditu bere bi alboetan, bi erosketa esperientzia ezberdinekin; Beasaingo “B aukera”-ren alde egitera gonbidatuz.

Era berean, lurzoruan kokatuko diren biniloek “B aukera daukagu” mezuarekin beteko dituzte herriko kaleak, Beasaingo Udalak eta herriak oro har “B aukera” duela baieztatzeko. Hori horrela, Beasaingo saltokietara, ostalaritzara eta zerbitzuetara bideratuko gaituzten puntu erraldoiez osatutako ilaren gisa agertuko dira.

Aldi berean, eta Beasaingo saltokietan, kanpainaosatzen duten 4 erosketa esperientzien grafikoa erakutsiko da dendetan, ostalaritzako eta zerbitzuetako aretoetan kokatutako karteletan eta erabiltzen ez diren lokaletako erakusleihoetan, bai eta Beasaingo kaleetan dauden euskarri digitaletan ere.

### **“B aukera”, Beasaingo aukera**

Zer eskaintzen du B aukerak? Beasaindik paseatzea, merkatarien aholkuak jasotzea, gertuko harremana, profesionala, pertsonalizatua eta bikaina eskaintzen baitute. Auzoko dendetan erostea, udalerrian zergak ordaintzen dituzten eta herriari bizia ematearen aldeko apustua egin duten ekintzaileak buru direla.

Kapritxo bat eman, arratsaldea luzatu eta pintxo batzuk jan edo kafe bat hartu. Beasaingo merkataria eta saltokien Instagrameko profilak bisitatzea, komunikabide berrien aldeko apustua egiten dutenak eta erosketak erreserbatzeko aukera eskaintzen dutenak.

Kanpainaren aurkezpenean Eneritz Iturrioz eskualdeko merkataritza bulegoko teknikaria eta Marijo Irazustabarrena herriko merkataria izan dira. Biek nabarmendu dute horrelako kanpainen garrantzia, funtsezkoa

baita saltoki txikiek tokiko bizitzan duten funtzioa nabarmentzea. Merkataritza-gune handiek eta, bereziki, online erosketek dakarten mehatxuaren ondorioz, tokiko merkataritzari garrantzia ematen eta tokiko merkataritzaren hurbiltasuna, konfiantza, tratua eta zerbitzu ona azpimarratzen ahalegintzea funtsezkoa da.